

BEZEROEKIKO HARREMANAK

LIMUk hiru harreman mota erabiltzen ditu:

Hasteko, laguntza pertsonala emango du, denda fisikoan bezeroei zuzenean lagunduko die altzariak aukeratzen eta diseinatzen. Beste aldetik, autozerbitzua ere egongo da, bezeroak aplikazioa erabili izango dute bere espazioa neurtzeko eta bere diseinua sortzeko. Azkenik, zerbitzu automatizatua egongo da, non aplikazioak bezeroak sartutako datuen arabera proposamenak eta neurketak automatikoki sortzen ditu.

Hasieran bezero berriak erakartzea da helburua, gure altzari berezi eta pertsonalizatuak ezagutaraziz.

Ondoren, bezero horiek fidelizatzea bilatzen dugu, zerbitzu osagarriak eskainiz (altzari osagarriak, muntaketa, etab.). Bezeroentzat, urte batzuk igaro ondoren altzariak hondatzen badira, konponketa-zerbitzu berezi bat eskainiko dugu, eta prezio bereziak aplikatuko ditugu.

Azkenik, gure helburua da produktu nagusiarekin batera eskaintzen diren osagarrien salmenta handitzea. Oheko altzariak eta koltxoak saltzen ditugunean, burkoetan deskontu berezia eskainiko dugu.